



Sexu gunea berriro politizatzea gaur egungo arte jardunetan



ERREAKZIOA/REACCIÓN & MARÍA JOSÉ BELBEL

Zehar-en ale honen ildo nagusia ibilbide bat egitea da gaur egungo artearen esparru zabalean, feminismo politiketan *queer* teoriak eta praktikek nortasun, genero eta sexu ezberdintasunaren inguruan izan duten eragina aztertzeko. Nola hartzen eta eraldatzen dituzte aurreragoko belaunaldien jarrera teorikoak eta egiteko erak ondorengo belaunaldietako emakumezko artistek? Nola ezartzen da genealogia hori gure testuinguruan?

Laura Mulvey-k, *Plazer bisuala eta zinema narratiboa* saiakeran bideo artista feministen lehen belaunaldiari dei egin zien zinematik eskaintzen duen plazera, begiratzeko plazera, hain zuzen, borroka zezaten. Plazer hori ezeztatzea eta suntsitzea begirada maskulinoak (ez soilik begirada maskulinoak, baizik begiradak, botere egitura konplexu bezala harturik) emakumea non kokatzen duen eztabaidatzeko taktika politiko bezala erabili zen. Laura Kipnis-ek *Emakumezkoen transgresioa* testuan ondorengo beste bideo lan batzuk aztertzen ditu, *queer* teoriarekin erlazionaturik daudenak, plazer eta genero, begirada eta sexualitateari buruzko politikak beste modu batera azaltzen dituztenak, eta narratibaren, umorearen eta plazer bisualaren berreskuratze taktiken bitartez, erakarri egin nahi dute eta ez urrundu. Era atseginean azaltzen dira jendaurrean eta posible egiten dute ihesbide bat lehenagoko erreprezentazio politika feministen alde murriztaileenei dagokienez, nahiz eta jakitun izan horiekin zorretan daudela.

Laurogeiko hamarkadaren amaiera geroztik hainbat performance antolatatu dira, Judith Halberstam-ek emakumearen maskulinitatea deritzonari buruz; sexu/genero mailak eta maskulinitate/gizona binomioak naturalizat jotzea zalantzan jartzen dute. Maskulinitate performance horiek *queer* nahiaren irudikapenak dira, begirada androzentriko eta heterozentratuari plazer bisuala ukatzeko modu bat. Publikoari identifikazio eta ezagutze moduak eragiten dizkiote; publikoak jantzen, keinuen, begiradaren eta gorputzaren inguruko esperientzia elkarrekin bizitzen dute, kode berriak sortu eta maskulinitatea desnaturalizatzeko. Simone Beauvoir-en “ez gara emakume jaiotzen” baieztapenari beste hau gehituko genioke: “ezta gizon ere”.

Gaur egun, diskurtso hegemonikoen arlotik askotariko generoa eraikitza bideratutako lan batzuk garatzen ari dira, arlo horietatik abiatuz genero arauak bere gain hartu, azpikoz gora jarri eta ekoizten dituztenak. Lan horiek ahuldu egiten dituzte generoa benetakoa, normala eta naturala dela adierazten duten irudikapenak; nortasun arinen, ez bitarren sorkuntza interesatzen zaie, nortasuna desegiteko eta ezegonkortzeko modu bezala, baita identifikazio guneak gorputz positibitate sorta zabalagoari eskaintzeko modu bezala ere. ❧